

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Behin betiko onartzea hileta eta/edo omenaldi zibilak arautzen dituen zerga ordenantza

Erreklamaziorik aurkeztu ez denez gero hileta eta/edo omenaldi zibilak arautzen dituen Zalduondoko Udaleko zerga ordenantza ezartzeko erabakiaren aurka hura jendaurrean egon den arauzko epean, behin betiko onartuta geratzen da, eta osorik argitaratzen da ordenantzaren testua, 41/1989 Foru Arauak, toki ogasunak arautzen dituenak, 16.4 artikuluan eta apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, toki araubidearen oinarriak arautzen dituenak, 70.2. artikuluan aurreikusitako ondorioetarako.

HILETA ETA/EDO OMENALDI ZIBILAK ARAUTZEN DITUEN ZERGA ORDENANTZA

HITZAURREA

Estatu ez-konfesional eta laiko batek bermatu behar du bere hiritarren erlijio, ideologia, eta kultu eta gurtza askatasuna, legearekin baterako ordena publikoa mantentzeko beharrezkoak diren mugetatik haratago joan beharrik gabe. Edozein kasutan ere, gure gizartearen aniztasun ideologiko, erlijioso eta kulturala, askotarikoa da eta etengabeko transformazioan dagoenez bere ohitura eta gizarte ekitaldien adierazpenean, babestu beharreko ondasun juridiko, sozial eta kulturala da.

Gurtza askatasuna adierazi ohi den gizarte ororen esparru adierazgarrietako bat da hildakoei agur egitearekin eta hileta ohore eta errituekin lotura daukaten tradizio erlijioso eta sozialena, zeinen bitartez, gizakiok bizitzaren mugarekin aurrez topo egiten dugun; hain zuzen ere, heriotza eta azkenarekin.

Gure gizartean heriotzaren trantze hori fede erlijiosoari lotu izan zaio, eta elizek tenpluak izateaz gain badute hiletetako ohore eta errituen tradizio luze bat, ahalbidetzen dietenak hildakoen familiei euren hildakoak ohoratzea. Baina gurea bezalako gizarte ireki bezain pluralista batean badaude iritzi sekularizatuko hiritarrak ere, edozein elizatik kanpo daudenak, ezin dutenak erdietsi euren hildakoentzako hileta ohorerik lokal duin eta egokietan euren dolu pertsonala egiteko eta azken agurra emateko.

Zuzenbideko estatu sozial eta demokratiko batek botere publikoei hitzemanarazten die ez bakarrik eskubide eta askatasunen berme negatiboko agintaldia izatera, ezpada behartzen ditu jarrera proaktiboak izatera, halako moldez non ezin daitezkeen konformatu egiten uzte hutsarekin, baizik eta sustatu behar dituzten benetako berdintasun eta askatasun baldintzak.

Horiek horrela, sustatu beharreko berdintasuna sustatzeko denon artean arlo honetan, zeinahi direla ere bakoitzak dituen uste sendo erlijioso edo filosofikoak bizitzaren amaieraz, botere publikoek aretoak eskaini ditzakete, betiere euren posibilitateen neurrian, hildakoei merezi duten hileta, aitormen, omenaldi edo zeremoniak egiteko beharrezkoa den edukierarekin eta beharrezkoak diren tankera dotore eta txukuntasun baldintzekin.

Aurreko guztiagatik, ordenantza honek hildakoari omenaldia eta/edo agurra egiteko baimena eta ekitaldia arautzen ditu.

I. KAPITULUA. PRINTZIPIO OROKORRAK

1. ARTIKULUA. XEDEA.

Ordenantza honen xedea da arautzea Zalduekiko udalerrian hileta eta/edo omenaldi zibilak egiteko aurreikusitako lokal eta espazioen baimena eta erabilera.

2. ARTIKULUA. ESKUMENA.

Alkate-lehendakariarena da hileta eta/edo omenaldi zibiletarako gordetako espazioak erabiltzeko baimena emateko eskumena.

3. ARTIKULUA. HILETA ETA/EDO OMENALDI ZIBILAK EGITEKO LEKUAK.

1. Hauexek dira hileta eta/edo omenaldi zibilak egiteko gordetako udal lekuak:

Udalbatza aretoa (60 pertsonentzako edukiera)

Erabilera anitzeko aretoa (100 pertsonentzako edukiera)

Erabilera anitzeko areto handitua; baita alboko gela eta hirugarren solairuko balkoi korritua ere (170 pertsonentzako edukiera).

Eskatzaileak, halaber, udalaren materialak ere baliatu ahal izango ditu (aulkiak, mahaiak eta abar), baldin eta behar besteko aurrerapenez eskatzen baditu eta ez badaude beste ekitaldi eta/edo ospakizun baterako gordeak. Material hori udal langileek kokatuko dute, eskatzaileak ere –edo hala balegokio, hark izendatutako pertsonak– zeregin horretan parte hartuta.

2. Inola ere ezingo da udal aretoetan sartu adierazitako gehieneko edukiera baino pertsona gehiago.

4. ARTIKULUA. GAI OROKORRAK.

1. Ezin da egin hiletarik eta/edo omenaldi zibilik gorpua bertan dela, eta horretarako ez dago inolako salbuespenik. Edonola ere, bai egin ahalko dira errauts kutxekin edo anforekin.

2. Ekitaldia ezin izango da izan bi ordu baino luzeagoa.

3. Eskaera sinatu duenak izango du arduraren legez, oro har, xedatutako betebeharrak beteazteko, eta bereziki, ordenantza honetan adierazitakoak. Sekula ezin izango egotzi alkate-lehendakariari ekitaldia egitearen ondoriozko edozein motako kalte eta/edo erantzukizunik.

Halaber, eskaera sinatu duenak ordaindu beharko ditu bere eskura jarritako, hala badagokio, udal lokal eta/edo materialei eragindako kalteak.

3. Eskatzaileak omenaldirako zerbitzu osagarriak ekarri ahal izango ditu bere kontura, hala nola apaingarriak, musika, proiektzioak eta abar. Udalak haiek gainbegiratzeko eskubidea du, baina betiere haien gaineko erantzukizun osoa eskatzailearena izango da.

Baldin eta eskatzaileak behar badu ekitaldia egingo den espazioa aparteko eran apaintzea eta egokitzea, hori aldeztu aurretik jakinarazi egin behar dio udalari, eta eragindako espazioaren ezaugarriak errespetatu behar ditu. Kasu horretan, haren kontura izango dira sortutako gastu guztiak, baita garbiketa berezia egitea ere beharrezkoa izanez gero.

Edozelan ere, udalak eskatzailearen eskura jarriko du megafonia, pantaila eta proiektagailuko oinarrizko sistema bat, betiere hori posible bada.

4. Eskaera aurkezteak berekin dakar onartzea kasuan kasuko zerga ordenantzan ezarritako tasa. Ekitaldia egin baino lehen ordaindu beharko da tasa hori.

5. Hileta zibil eta/edo omenaldien ekitaldiak astelehenetik igandera egin ahal izango dira, 09:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

6. Ordenantza honetan jaso gabekoetan, udal arduradunen aginduak bete beharko dira.

II. KAPITULUA - PROZEDURA

5. ARTIKULUA. ESKAERA.

1. Eskaera udalak emandako eredu normalizatuaren arabera egin ahalko da. Nolanahi ere, honako hauek eduki beharko ditu:

a) Udal instalazioetan ekitaldiak egiteko baimena edo haiek erabiltzeko baimena eskatzen duenaren izena, deiturak, bizilekua eta identifikazioa.

b) Hildakoaren izen-abizenak. Heriotza ziurtagiria aurkeztu beharko da.

c) Ekitaldia non eta noiz egingo den (lekua, eguna eta ordua). Eskatzaileak hiru aukera adierazi ahal izango ditu. Ebazpena adierazitako lehentasun hurrenkeraren arabera izango da, eta, ezezkoa emanez gero, arrazoitu egin beharko da, eta lehendik baimendutako ekitaldi bat izatea ez beste arrazoirik ez da emango.

d) Ekitaldiak zenbat iraungo duen gutxi gorabehera

e) Ekitaldiaren azalpen laburra, eta hala badagokio, udalari zer material eskatu zaion.

f) Ekitaldirako ekarriko diren zerbitzu osagarrien azalpena (apaingarriak, musika, proiektzioak eta abar).

g) Eskatzailearen sinadura, eta/edo borondatea egiazkoa duela egiaztatzea beste moduren batean.

2. Eskaeran datu horiek eman ezean, eskatzaileari eskatuko zaio beranduenez ere eskaera egin eta bi egun balioduneko epean, aurkez ditzala. Eskaera horretan, adierazi egin beharko da eskatutako datuak aurkezteko gehienezko epea. Epe hori igarotakoan eskatzaileak ez badu aurkezten eskatutakoa edo eskaerak ez baditu betetzen aurreko paragrafoan zehazten diren betekizunak, eskaeran atzera egin duela joko da.

3. Omenaldiak eta/edo hileta zibilak egiteko baimena emateko prozedura arintasun eta eraginkortasun printzipioen pean egongo da.

6. ARTIKULUA. TASAK.

Udalbatza aretorako (60 pertsonentzako edukiera): 10euro/ordu

Erabilera anitzeko aretorako (100 pertsonentzako edukiera): 20euro/ordu

Erabilera anitzeko areto handiturako; baita alboko gela eta hirugarren solairuko balkoi korriturako ere (170 pertsonentzako edukiera): 30euro/ordu.

7. ARTIKULUA. INSTRUKZIOA ETA EBAZPENA.

Alkate-lehendakariak ebatziko du dekretu bidez, eta berak ezarriko du hileta eta/edo omenaldi zibila egiteko lekua, eguna eta ordua, eskatzaileak eskaeran ezarritako lehentasun hurrenkeraren arabera. Eskaerari ezezkoa ematekotan, arrazoitu egin beharko da. Hainbat eskaera badaude hileta eta/edo omenaldi zibilak egiteko leku, egun eta ordu bererako, sarrera erregistrotroko aurkezpen data eta zenbakiaren arabera ebatziko da.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Zalduondoko Udaleko alkate-lehendakariari baimena ematen zaio ordenantza hau aplikatzeko beharrezkoak diren egintzak burutzeko.

Zalduondo, 2017ko urtarrilaren 25a

Alkatea

GUSTAVO FERNANDEZ VILLATE